

ERANSKINA 2

INGURUMEN LABURPENA

1. DOKUMENTAZIOAREN LABURPEN -EZ TEKNIKOA

1.1.1. INGURUMEN-ALDERDIAK PLANEAN TXERTATZEA

Zarauzko etorkizuneko industria-eskaerei zerbitzua emateko 132/30 kV-ko TA ezartzeko hainbat aukera eta alternatiba aztertu dira, baita inguruko zerbitzuaren kalitatea bermatu ere, egungo banaketa-sarea 30 kV-tan indartuz.

Lurzoru urbanizaezineko hainbat eremu aztertu dira, eta TA Errotaberriko industria-sektorearen barruko lurzati batean kokatzea erabaki da, ingurumenaren aldetik kokalekurik egokiena delako; izan ere, plangintzak jada sailkatu eta erabat urbanizatuta zegoen.

Gaur egun Plan Partzialaren araudian jasota dagoen erabilera da, hala ere, beharrezkoa da gaur egun indarrean dagoen Plan Partziala aldatzea, antolamendu xehakatuko zehaztapenen zati bat egokitzeko eta TA garatzeko behar diren doikuntzak egiteko.

Plan Partzialaren Aldaketaren helburuak planteatzeko unean, araudi, estrategia eta programetarik ondorioztatutako ingurumen-helburuak kontuan hartu dira, eta plan sektorial guztien eta bertan eragina izan dezaketen lanen garrantzia aztertu da, kontraesanik egon ez dadin.

1.1.2. PLANEAN KONTUAN HARTUTAKO ALDERDIAK

- Ingurumen Azterketa Estrategikoa kontuan hartzea:

Errotaberri 24. eremuko Plan Partzialaren aldaketak Plan Partzialaren Aldaketaren Memoriaren ataletan IAEn identifikatutako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak eta ingurumen-arazoak biltzen ditu:

- A.2.3 Lurzoru kutsatuak
- A.3. Aztertutako alternatibak
- A.4.7 Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

- Kontsultak eta informazio publikoa kontuan hartzea:

Errotaberri 24. eremuko Plan Partzialeko aldaketa puntuala eta IAE jendaurrean jami ziren 45 egun baliodunean. Halaber, tartean diren administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko tramitea egin zen.

Partikular batek alegazio bakar bat ezetsi zuen, eta ez zuen aldaketarik ekarri.

Eragindako administrazioei eta interesdunei egindako kontsultei dagokienez, lau txosten jaso ziren: Kultura Ondarearen Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza), Bide Azpiegituren Saila

(GFA), Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa eta Kultura Ondarearen Saila (GFA). Bakar batek ere ez zuen aldaketarik ekarri, GFAREN kultura-ondareari dagokiona izan ezik.

Nahiz eta egiaztatu den 4C lurzatian ez dagoela kultura-ondareko elementu babesturik (arkitektonikoa edo arkeologikoa), Plan Partzialari dagokion eremuan elementurik baldin badago, kontuan hartuz egindako azaleko prospekzioekez dutela betetzen Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 65.1 artikuluan ezarritakoa.

Horregatik, Plan Partzialaren Aldaketa Puntuala aldatu da, A.2.5 atala gehituz. (Kultura Ondarea), Kultura Ondarearen Sailaren (GFA) eskakizunari erantzunez.

- Ingurumen Adierazpen Estrategikoa kontuan hartzea:

Errotaberri 24 eremuko Plan Partzialaren aldaketak IAEn eskakizunak gehitu ditu:

- o Plan Partzialaren Aldaketa Puntualaren Memorian A.4.7 (Prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak) atalean jasotako neurriak jaso dira. Hala ere, berriaz adierazten da kontuan hartu beharko direla IAEn agertzen diren neurri guztiak.
- o Plan Partzialarekin batera erregulatzen duen araudian, D atala aldatu da (Proiektuen betetzea eta garapena, Garapen Jasangarriko Sailaren txosteneko irizpideak), eta Ingurumen Irismen Estrategikoko Dokumentuan eta IAEn adierazitako zehaztapen guztiak gehitu dira.

1.1.3. HAUTATUTAKO ALTERNATIBAREN JUSTIFIKAZIOA

Lurzoru urbanizaezineko hainbat eremu aztertu dira, baina alternatiba guztiek lurzoru naturala galtzea suposatzen zuten, eta landa-ingurune horien paisaia-kalitatea eta instalazio berriak ekarriko lukeen intrusioa kontuan hartuta, eragin txikiagoa sortuko duen beste kokaleku bat planteatzen da.

TA Errotaberri industrialdearen barruko lurzati batean kokatzea erabaki da, ingurumenaren aldetik kokapenik egokiena delako; izan ere, plangintzak jada sailkatutako eremua zen, erabat urbanizatuta zegoena, egungo Zarautz TAtik gertu eta sarbideez inguratuta zegoena, Errotaberri TA bezalako instalazio batek sorlitzakeen eraginak nabarmen minimizatzen dituen.

Errotaberri industrialdeko lurzati hutsetatik 4B eta 4C lurzatietan alternatibak proposa zitezkeen. 4B lurzatia 4. lurzatiaren erdian dago, eta eragin handiagoak sortzen ditu lurzati mugakideetan; beraz, baztertu egiten da. 4. lurzatiaren muturrean, merkataritzako lurzatiaren ondoan, dagoen 4C lurzatia aztertu da eta aukerako lau antolamendu alternatiba aztertu dira.

4C lurzatian garatzen den alternatiba 4D izenekoa da, lurzatiaren arteko zortasuna ahalbidetzen duelako, merkataritza PE-19 lurzati mugakidean eragin txikiagoa duelako eta, gainera, ingurumen-inpaktu txikiagoa eragiten duelako.

1.1.4. PLANAREN INGURUMEN-ONDORIOEN JARRAIPENA EGITEKO HARTUTAKO NEURRIAK

- Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio- neurriak

IAEn, identifikatutako eragin nagusiak arintzeko, prebentzio-neurriak eta neuri zuzentzaileak planteatzen dira.

PREBENTZIO-NEURRIAK

- o Prebentzio-neurri nagusietako bat Errotaberri industrialdean egingo den azpiestazioa kokatzea da, ingurumenean eragin txikiagoa izango duen leku batean, dauden bideak aprobetxatuz.
- o Hondakinen Kudeaketaren Azterketa (HKA) idatzi da, obretako hondakinak biltzeko lanak biltzen dituen eta horiek kudeatzeko prozedura antolatzen duena.
- o Prebentzio-neurri askok lurzorua, uraren, atmosferaren, landarediaren, faunaren, biztanleriaren eta abarren gaineko eraginak minimizatzeko balio dute edo aldi berean hainbat alderditarako. Hauek dira garrantzitsuenak:
 - Materialak pilatzeko eremuak ahalik eta gutxien izatea eta TA barruan definitzen diren bilketa-eremuetan soilik kokatzea.
 - Egungo bideak erabiliko dira eta bideak ibiltzeko modukoak direla ziurtatuko da, eta lehentasuna emango zaie inguruko bizilagunei zirkulazioan. Obrak ahalik eta lasterren egingo dira eta obra behar bezala seinaleztatuko da.
 - Materialen soberakin guztiak obran sortzen diren hondakinak kudeatu eta minimizatuko dira. Ez da eraikuntzako materialik edo hondakinik utziko eremuan edo ingurunean, eta sortzen direnak behar bezala kenduko dira.
 - Makineria edo ibilgailuen nahitaezko mantentze-lanak egingo dira, lurzoru kutsatzeko arriskurik ez badago.
 - Makinek eta ibilgailuek behar diren ikuskapen teknikoak izango dituzte eta egoera onean egongo dira.
 - Substantzia arriskutsuren bat lurrera isurtzen bada, berehala kendu eta kudeatuko da.
 - Lurrazaleko urak traba ditzaketen lurrak garbitu eta kenduko dira.
 - Ur bolumena jatorrian murrizten saiatuko da. Azalera iragazgaitzak ahalik eta gehien mugatuko dira eta drainatze jasagarriak erabiliko dira.
 - Jarduera ezarri aurretik, lurzorua egoerari buruzko txostenak aurkeztu beharko zaizkio ingurumen organoari, lurzorua kutsadurari buruzkoa.
 - Ahalik eta hauts gutxien harrotzea. Aldi lehorretan, urarekin ureztatuko dira partikula esekiak ugaritu daitezkeen eremuetan.
 - Kamioien karga estaltzea hautsa ez botatzeko, kamioien zamalanetan arreta berezia jarritz.
 - Zaratek edo hautsak sortutako eragozpenak murrizteko: gehiegizko abiadura eta azelerazioak/atxikipenak saihestea, ibilbideak planifikatzea, etab.

- Makinek eta ibilgailuek behar diren azterketa teknikoak egingo dituzte eta egoera ezin hobean egongo dira (zaratak eta errekontza-gasak).
- Obren eremua 4C lurzatira mugatuko da, hegoaldeko haritz arboladiak ukitu gabe.
- Azpiestazioa eraikitze fasean kontrol Arkeologikoa egin beharko dela ezartzen duen txosten arkeologikoa egin da. Indusketa-lanetan hondar arkeologikorik antzeman ez gero, obra geldiarazi eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari jakinaraziko zaio.
- Makinak eta instalazio osagarriak ikus-inpaktu txikiena duten eremuetan kokatuko dira, eta kamioiak, garabiak eta abar ibiltzeko eta aparkatzeko eremu zehatzak mugatuko dira.
- Kromatismoa azpiestazioaren egiturak osatzen dituzten elementuetarako egokitzea, ingurune koedo hondo eszenikoko kolore eta ñabardurekin ahaliketa kontraste txikiena sortzeko. Alde horretatik, kolore itzaliak aukeratu dira, distirarik gabekoak eta islarik sortzen ez dutenak, material galbanizatuak, esaterako.

NEURRI ZUZENTZAILEAK

- o Behar bezala kenduko dira obretan soberan dauden materialak eta istripuz gerta daitekeen edozein isuri, eraikuntza-lanak amaitutakoan.
- o Sarbideak eta gurutzatu eta/edo erabili behar izan diren eta kaltetu ahal izan diren eremu guztiak leheneratuko dira. Eraikuntzan jabeen egindako kalteak birgaitu egingo dira edo ekonomikoki konpentsatuko dira.
- o Metatutako materiala garbituko da, eta materialak ibilgailuen edo oinezkoen joan-etorria eragozten badu, berehala garbituko da.
- o Landare aloktonoen espezieak ez zabaltzeko behar diren neurriak hartuko dira.

Plan Partzialaren Aldaketa Puntualaren IAEn, gainera, neurri gehigarriak jasotzen dira, edo modu xeheagoan zehazten dituztenak:

- o Kultura-ondareari dagozkion neurriak. Egindako azterketa arkeologikoa osatuko da, orubearen balio arkeologikoari buruzko alde aurreko azterketa eginez, 6/2019 Legearen 65. artikulua aplikatuz, eta ebaluazio-zundaketen programa bat egingo da baliabide mekanikoekin, lur-mugimenduak egingo diren eremuan.
- o Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruekin lotutako neurriak. Aurreikusitako instalazioa lurzoru kutsa dezakeen jarduera bat denez, titularrak 4/2015 Legearen 8. artikuluan aurreikusitako lurzoruaren egoerari buruzko txostenak aurkeztu beharko ditu.
- o Zaraten eraginak murrizteko neurria. Aurreikusitako bigarren transformadorea ezarri gero, balioak beteko direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu beharko dira. Aldaketa hau garatzeko proiektuak justifikatu eta bermatu beharko du

eremu/sektoreetako jarduera berrietan aplikatu beharreko zarata-immisioaren muga-balioak beteko direla.

- o Planaren garapena ingurumenean integratzeko neurriak. Garapen-proiektuan ingurumen- eta paisaia-lehengoratzeari definituko dira, landareztatu daitezkeen garapenaren egikaritzearen eraginpeko gune guztiak barne hartuta.
- o Aurreikusitako garapena gauzatzen den bitartean ingurumena babesteko neurri orokorrak
 - Langileek erabili behar duten jardunbide egokien gidaliburuak.
 - Lurzoruak babestea: Obrak behar-beharrezko den gutxieneko eremuan egingo dira.
 - Hondakinen ekoizpena eta kudeaketa: Hondakinak Legean aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira eta berriazko eremu bat egokituko da hondakinak behin-behinean biltegitzatzeko.
 - Lurzoruak eta lurpeko urak babestea: prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko dira dagokion obra-faserako, ustekabeko isurien eragina saihesteko.
 - Airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babestea: eguneko lan-ordutegian jardungo da, eta kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira.
- o Eraikuntza jasangarriko neurriak. Urbanizazioak kontuan hartu beharko ditu «Urbanizazio-proiektuen garapen iraunkorrerako gidaren» gomendioak.
- o Klima-aldaketa murrizteko eta klima-aldaketara egokitzeko neurriak. Plana garatzeko proiektuak diseinatzerakoan, klima-aldaketaren aurkako pixkanakako egokitzapena eta erresilientzia bultzatzeko behar diren neurriak kontuan hartuko dira.
- o Planaren ondoriozko proiektuen ingurumen-ebaluaziorako gidalerro orokorrak. Planaren ondoriozko proiektuen ingurumen ebaluazioan lurraldearen baldintzak eta ingurumen agirian adierazitako ingurumen irizpideak kontuan hartuko dira.
- Ingurumena Zaintzeko Programa

Plan Partzialaren Aldaketa Puntualaren ingurumen-jarraipena oinarritzeko kontrol-neurrietan oinarritzen da irizpideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko. Kontuan hartu beharreko kontrol garrantzitsuenak:

 - o Ingurumen Agiri Estrategikoan adierazitako kontrol guztiak.
 - o Indusketan hondar arkeologikoaren bat antzemanaz gero, obra gelditu eta agintari eskudunei jakinaraziko zaie.

- o Kalitate atmosferikoaren eta akustikoaren kontrola betetzea.
- o Obrek dirauten bitartean kontrolik gabeko jariakinik ez egotea, makinek ez dutelako mantentze-lanik egiten.
- o Obretako makinek beharrezko gurpil-garbiketak egitea, jariatze-urak ez kaltetzeko.
- o Eremutik kanpoko landaredia ez ukitzea.
- o Olio erabilien, koipeen, hidrokarburoen eta abarren tratamendurako zaintza eta kontrolak.
- o Maiz garbituko dira lurrerako obrara sartzeko bideak, garraiatutako harriak, etab.
- o Hondakinen kudeaketa gainbegiratu da.
- o Obrak amaitu ondoren, hondakin guztiak behar bezala bildu eta kudeatzen direla begiratu da.
- o Landare-lurra behar bezala kentzen dela eta behar bezala tratatzen dela kontrolatu da.
- o Urbanizazio-proiektuak obretan zehar egin beharreko kontrolak zehaztu beharko ditu, bereziki Balizko Arkeologia Guneekin lotutakoak.
- Gainbegiratu beharreko aldagaiak eta kontrol-adierazleak

Informazio garrantzitsua eman dezaketen adierazleak bakarrik kontuan hartzen dira. Aldaketak jadanik urbanizatuta dagoen eta natura-intereseko elementurik ez duen lurzati bati eragiten dionez, adierazlea kultura-intereseko elementuen kontrolarekin lotuta dago, ondare-elementuak babesteko. Horregatik, obren fasean kontrol arkeologikoa planteatzen da.